



ZIZUR NAGUSIA
KULTUR PROGRAMA
URTARRILA-OTSAILA 2023



Jarrai gaitzazu ZizurArten:
www.zizurmayorcultura.es/eu



EGUTEGIA



URTARRILA

								1
2	3	4	5	6	7	8		
9	10	11	12	13	14	15		
16	17	18	19	20	21	22		
23	24	25	26	27	28	29		
30	31							

EGUNA

- 02 HAUR DANTZA "MiraMiró"
BAAL
- 03 HAUR ZINEMA "Los tipos malos"
- 04 HAUR ANTZERKIA "Zuhaitzak landatzen zituen gizona"
TEATRO GORAKADA
- 14 ANTZERKIA "Celestina infernal"
TEATRO CORSARIO
- 20 ANTZERKIA-MUSIKA "Legado"
ADRIANA OLMEDO
- 28 ANTZERKIA "La Malpagá"
PRODUCCIONES MAESTRAS

OTSAILA

	1	2	3	4	5			
6	7	8	9	10	11	12		
13	14	15	16	17	18	19		
20	21	22	23	24	25	26		
27	28							

- 04 ANTZERKIA "Muchos amigos negros"
ADOS TEATROA
- 05 HAUR ZINEMA "Orkestra Lurtarra"
- 10 ANTZERKIA "Antonia"
JAVIER LIÑERA ETA ÉKOMA TEATRO
- 17 MUSIKA "Instantánea"
ALBERTO RODRÍGUEZ PURROY & BANDA
- 19 ZIRKUA "Esencial" VAIVÉN CIRCO
- 25 ANTZERKIA "Good Sex, Maritxu!"
GURUTZE BEITIA, SUSANA SOLETO,
ITXASO KINTANA



**AHAL DUZUN GUZTIETAN,
EROSI ZURE SARRERAK
INTERNET BIDEZ**



**ESKATU AURIKULARRA
EDO BEGIZTA MAGNETIKOIA
ATEZAINDEGIAN**

Antolatzaileak:



Zizur Nagusiko Udala
Ayuntamiento de Zizur Mayor



Euzko Foruak
Euzko Foruak

Diru-laguntzaileak:

Gobierno de Navarra
Nafarroako Gobernua



RED DE TEATROS
DE NAVARRA
NAFARROAKO
ANTZOKI SAREA



Gobierno de España
Ministerio de Educación, Cultura y Deporte



inaem



PROGRAMA ESTATAL
DE ARTES ESCENICAS

L.G. NA-1369-2012. Doako zabalpena.



BILATU PROMOZIOAK!



ZizurArte

14€

URTARRILA
BONUA

"Celestina infernal"
TEATRO CORSARIO
2023/01/14



"La Malpagá"
PRODUCCIONES
MAESTRAS
2023/01/28

12€

OTSAILA
BONUA

"Muchos amigos
negros"
ADOS TEATROA
2023/02/04



"Antonia"
JAVIER LIÑERA
ETA ÉKOMA TEATRO
2023/02/10



PREZIOAK MURRIZTU DITUGU!

GAZTE ETA IKASLE TXARTELAK (12 eta 30 urte bitartekoentzat): 4 euroko edo 4 eurotik gorako sarreretan %50eko murrizketa. Ez da aplikatuko haur ikuskizunetan.
Betebeharrak: NANA eta txartela eguneraturik aurkeztea.

LANGABETUAK: Doako sarrera bat haur zinema emanaldietara haurra laguntzera joaten den helduarentzat.
Betebeharrak: NANA eta enplegua eskatzeko txartel eguneratua aurkeztea.

ALDEZ AURREKO SALMENTA

Abenduaren 21etik aurrera (asteazkena), 9:00etan

1. TXARTELDEGIA
 - Astelehenetik ostiralera 09:00 - 21:00
 - Larunbatetan 10:00 - 14:00
17:00 - 21:00
 - Igande eta jaiegunetan 12:00 - 14:00
 - Ikuskizuna hasi baino ordu bete lehenago.



2. INTERNET
www.zizurmayorcultura.es/eu
Egiaztatu zure erosketa eta ez ahaztu sarrera.
Gogoan izan: kosturik gabe

OINARRIZKO ARAUAK

Puntueltasuna: Behin ikuskizuna hasita, inork ez du sartzerik izanen aretoan.

Seinale akustikoak: Deskonektatu beharko dira.

Grabazioak eta argazkiak: Debekatuak daude.

Janaria eta edaria: Debekatuak daude.

Dirua itzultzea: Ikuskizuna bertan behera uzten denean soilik.

Haur ikuskizunak: Adin gomendatura doitzea aholkatzen da.

- 3 urtetik behekoek: Ikuskizuna adin horretarako denean baizik ez dute bertaraterik izanen.
- 3tik 7 urtera: heldu batek lagunduta joan beharko dute.

URTARRILA

Astelehena

2



HAUR DANTZA

MiraMiró

BAAL

18:00

6€

45 min

Adin gomendatua:

3 urtetik aurrera



inaem

PLATEA

PROGRAMA ESTATAL
DE ARTES ESCÉNICAS

Dantza eta bideo-animazioko ikuskizun honek Joan Miróren sormenezko mundua erakutsiko die haurrei, sentiberatasun izugarri eta ahalmen hipnotikoz erakutsi ere. Saioa haren lan grafikoaren aukeraketan dago kokatua. Kolore biziak eta irudien zein pertsonaien botere

eraldatzaileak irudimena piztuko dute, dena posiblea dela agerraraziz. Margolanak era magikoan biziberrituko dira eta irudimenezko mundu batera eramanez gaituzte. Horra, beraz, bidaia zoragarria kosmosera, aurkikuntzaz eta sorpresaz betea.

Asteartea

3



HAUR ZINEMA

Gaztelaniaz

Los tipos malos

18:00

3€

100 min



Ekintzaz beteriko tramaren erdi-erdian, orain arteko beren lanik zailena egiten saiatuko dira bost gaizkile ospetsu: zintzo jokatzea.

Asteazkena

4



HAUR ANTZERKIA
Euskaraz

Zuhaitzak landatzen zituen gizona

TEATRO GORAKADA

18:00

4€

55 min



Elzéard Bouffierren istorio miragarria da; alegiazko artzaina da baina sinesgarri oso, urte luzez zuhaitzak landatzen aritu zena Proventzako inguru zabal batean, eremu mortu hartara bizia eta berdetasuna ekarrita. Bi gizonen arteko topaketaren istorioa da, bakardade ikaragarriaren erdian. Horietako batek, Bouffierrek, bizi den

inguruko bazterrak basoberritzen dihardu lurra salbatzeko. Bestea, berriz, bere burua aurkitzen ari den gazte bat da, eta ikasiko du borondatea eta eskuzabaltasuna direla erresilientziaren tresnak. Den-dena, naturarekin harremanean kontaturik, gizakiaren sormen indarraren bidez, eta xehetasun txikiekiko maitasunak bultzaturik.

Larunbata

14



ANTZERKIA



Celestina infernal

TEATRO CORSARIO

20:00

12€

60 min



inaem PLATEA PROGRAMA ESTATAL DE ARTES ESCENICAS



Jende gazte eta helduendako ikuskizuna da, giza tamainako panpina izugarrien eskutik, kultura unibertsaleko pertsonaiarik ospetsuenetako baten inguruan, La Celestina (Fernando de Rojas). Fantasia horretan, ez dira falta maitasun grinatsuak (erotismo harrigarriarekin), indarkeria, heriotza eta umorerik beltzena. Celestina etsi-etsian saiatzen ari da berriro gazte izaten eta plazer galduez gozaten, baina enkargu

garrantzitsua jasoko du: lortu behar baitu Melibea Caliztoz maitemintzea. Eta jada badauka urkatu baten soka sorginkeria botatzeko. Eszenaratzeak ahozko tradizioaren maitagarrien ipuinen alorrera darama Rojasen komedia humanistikoa, bai eta Boccaccioen kontakizun erotikoen alorrera ere.

URTARRILA

Ostirala

20



ANTZERKIA
MUSIKA

Legado

ADRIANA OLMEDO

20:00

6€

90 min

Begi grisak, ile gaztainkara, luzeraz txikia, zelulitisa eta musikazalea. Horra nire familiarengandik jasotakoa. Familiak borrokatu, hazi, hezi eta maitatu egin zuen. Emakume indartsuen familia, bizitza egokitu zitzaizen doinuaren ariora dantzan eta zailtasunen aurka oihuka kantuan. Adriana Olmedoren hitz horiek ongi azaltzen dute ikuskizuna. "Legado", izan ere, familia baten istorioa da, abestien bidez kontatua, amengandik alabengana, amaxiengandik bilobengana eta izebengandik ilobengana erakusten diren maitasuna eta musika aintzat hartuta... Istorioak antzerkia eta musika uztartu ditu, bai eta kantautore nafarrak



ondutako konposizioak eta arras kantu ezagunak ere; denon arteko soinu-bandaren barneko printzak dira, gozatzeko eta hunkitzeko.

Larunbata

28



ANTZERKIA

La Malpagá

PRODUCCIONES MAESTRAS

20:00

6€

80 min



Bartzelonako "L'Arcadia" klubean gaude, 90eko hamarkadako lehen egunetan. Giroan ederki nabari da olinpiaden aurreko alaitasuna, Sevillako erakusketaren aitzineko giro alai. Etorkizuna oparoa dator, edo hala ematen du. Gaur, show berria estreinatuko du Clara in the Dark vedetteak. Bere kantuen bidez, vedettearen bizitza eta desioak ezagutuko ditugu, bere oroitzapenak, eta nola dion sekulako debozioa Jaime Gil de Biedma adiskideari. Beti, ahots zailduko eta ukoz zein isiltasunez beteriko bizitza daraman Marie Brizard adiskide eta pianista leialak lagundurik.



OTSAILA

Larunbata

4



ANTZERKIA

Muchos amigos negros

ADOS TEATROA

20:00
10€
90 min

74



ES
TRE
NO
EN NA-
VARRA

Berandu da. Arimarik batere ez karrikan. Ixteko zorian dagoen edozein taberna. Barnean, azkena zurrupatzen ari dira jabea eta adiskide onena. Oso lagunak dirudite, baina biek ere sekretuak eta traizioak dituzte gordetik. Bat-batean, galduta dabilen migrante batek atean jo eta mugikorra kargatzen uzteko eskatuko du, Londresen dagoen alabari deitzeko. Mugikorrrik gabe, ezin du harekin hitz egin, ezta bidaia egiten jarraitu ere.

Bi lagunek diote lagundu nahi dutela, baina ez diote migranteari ulertzen. Denbora igaro ahala, egoerak arrailak irekiko ditu bien adiskidetasunean eta gatazka piztuko da. Gauaren amaieran, poliziari kontatuko dioten bertsioa klasiko bat da: migranteak ez zuen paperik, indarka sartu zen, eraso egin zien, ebatsi nahi zien. Haiek fabore bat egin nahi zioten, besterik ez. *Hemen ez gara arrazistak...*

Igandea


5



HAUR ZINEMA
Euskaraz

Orkestra Lurtarra

18:00
3€
74 min



Manu, haur zelarrik, Stella Panini pianista bikainaz maitemindu zen platonikoki. Harenganaino

iristeko, oso orkestra bitxia sortu zuen, eta bertan, Manuk zer joko... eta erratza!

OTSAILA

Ostirala

10



ANTZERKIA

74

Antonia

JAVIER LIÑERA ETA ÉKOMA TEATRO

20:00

6€

90 min



XXV.
MAX
SARIAK
Ikuskizun,
egile eta
aktorerik
onenarendako
hautagaia

Idazle batek ez ditu onartu medikuak proposatu dizkion ariketak oroimena berreskuratzeko eta, gisa horretan, diagnostikatu dioten gaitz arraroaren aurrerapena eragozteko. Oroitzapenak, ordea, azaleratu dira eta haren amatxiren eta osabaren ahotsak agertu-ko zaizkio. Amatxi, Antonia Olme-

ro Ramos, Errepublikako ekintzaile sindikalista; eta osaba, Álvaro Retana, Antoniaren anaia, idazle gaya. Lanak denborazko bidaia proposatzen du iraganaren eta orainaren artean, bai eta sormenezko bidaia bat ere, errealitatearen eta fikzioaren artean.

Ostirala

17



MUSIKA

Instantánea

ALBERTO RODRÍGUEZ PURROY & BANDA

20:00

6€



Alberto Rodríguez Purroy musikari eta kantautorearen bakarkako lehen lana entzuten dugu: "Instantánea". Proiektuak originaltasuna ematen dio autore-kantua- ren estiloari. Hamabi printza, poe-

siaz eta ironiaz beteak, mezudu- nak, transmititzen duen ahotsare- kin, hainbat erregistrotan murgil- duak, hala nola trobarik gabeko kantuan, swingean, popean edota bluegrassan.

Igandea

19



ZIRKUA

Esencial

VAIVÉN CIRCO

19:00

9€

55 min

Vaivén Circo taldearen ikuskizun berriak *Waldorfen* Ortzadarrean inspiratutako eszenaratzea ekarriko digu, hots, eszenografia ikusgarria sortzen duten zutabe eta arkuz osaturiko jostailua. Arkitektura aldakor baten aurrean gaude, berrasmatzeko gaitasuna dauka, gizakiak berak bere aurrerapenaren bila egiten duen moduan. Tindu poetikoz jantzitako eszenografia da, elementu mugikor elkar aldagarrietan oinarrituta; izan ere, magia balitz bezala, anabatatik harmoniara eramanen gaituzte segundo gutxitan. Gizakiari gertatzen zaion bezala. Izan ere, egoera nahasi eta ulergaitzen aurrean, konplexutasunetik ihes egiten du funtsezkora iritsi nahian.



Larunbata

25



ANTZERKIA

"Good Sex, Maritxu!"

GURUTZE BEITIA, SUSANA SOLETO,
ITXASO KINTANA

20:00

6€

75 min

Jende gazte eta helduentzako ikuskizuna da, "Good sex, Good day" lanaren egokitzapena. Yolanda García Serrano da egilea, hau da, Espainiako zinemako komediarik bikainen egilea, "Todos los hombres sois iguales", "Porqué lo llaman amor cuando quieren decir sexo?", etab. Hiru protagonistek duela urte batzuk gertatutakoa antzezten dute, hiruretako baten *lehen aldia* erakusteko; egia da lehen aldi hura berandu samar izan zela. Halaber, horrek beste biengan eragindako ondorioak agertuko dira: endredoak, ustekabeko erreakzioak, une barre-garriak. Den-dena orgasmo ona lortzearren!

